



*Bigarren Lehendakarioa eta Lan eta Enpleguko Sailburua
Vicelehendakari Segunda y Consejera de Trabajo y Empleo*

AGINDUA, 2023KO APIRILAREN 12KOA, BIGARREN LEHENDAKARIORE ETAN LAN ETAN ENPLEGU SAILBURUAREN, BIZKAIKO EGOITZEN SEKTOREAN (EGOITZA-ZENTROAK, ETXEBIZITZA KOMUNITARIOAK ETAN EGUNEKO ZENTROAK) 2023KO MARTXOAREN 8AN, APIRILAREN 3, 4, 5 ETAN MAIATZAREN 15, 16, 17, 18, 19 ETAN 20RAKO DEITUTAKO GREBAN EMATEN ZAION FUNTSEZKO ZERBITZUARI EUSTEA BERMATZEN DUENA

CCOO sindikatuak grebara deitu du Bizkaiko Egoitzen Sektorean (egoitza-zentroak, etxebizitza komunitarioak eta eguneko zentroak) 2023ko apirilaren 13, 14, 22, 23, 24 eta ekainaren 12, 13, 14, 15 eta 16rako, lehenengo eguneko 22: 00etatik tarte bakoitzeko azken eguneko 22: 00ak arte.

Grebarako deialdiaren helburua Lan Agintaritzari bidalitako jakinarazpenean jasota dago, eta hasitako espedienteetan jasota dago.

Espainiako Konstituzioaren 28.2 artikulua langileen greba egiteko eskubidea onartzen du, langileek beren interesak defenda ditzaten, horixe baita egungo zuzenbide estatu sozial eta demokratikoak oinarri dituen funtsezko eskubideetako bat. Konstituzioak, beraz, berdinean babesten ditu greba-eskubidea eta beste zenbait eskubide garrantzitsu, hala nola bizia, osotasun fisikoa eta osasuna. Hain zuzen, Konstituzioak bete-betean babesten ditu, bai eskubide horiek guztiak, baita greba egiteko eskubidea ere.

Beraz, greba egiteko eskubidea erabiltzeak talka egin dezakeenez herritarren gainerako oinarrizko eskubideekin, Konstituzioaren 28. eta 37. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritik, ezinbestekoa da neurri egokiak hartzea komunitatearentzako funtsezko zerbitzuei eutsiko zaiela ziurtatzeko, ez dadin edukirik gabe geratu gatazkan dauden oinarrizko eskubideetako bat bera ere.

Edonola ere, aurreko premisa ondorioztatu ondoren, nabaria da oinarrizko eskubideak murriztuko dituen neurri orok proportzionaltasun-printzipioa zorrotz bete behar duela eta, hori lortzeko, hiru betekizun edo baldintza bete behar dituzte neurriak: hori aplikatuz gero proposatutako helburua lortu ahal izatea, edo «egokitasun-judizioa»; kasua aztertu ondoren helburu hori eraginkortasun berdinarekin lortzeko neurri apalagorik ez dagoela ondorioztatu izana, edo «premia-judizioa»; eta, azkenik, neurria edo konponbidea orekatua edo neurtua izatea, haren aplikazioaren ondorioz guztion intereserako onura edo abantaila gehiago eragiten direlako auzian dauden beste ondasun edo balioetarako eragiten diren kalteak baino, hau da, «proportzionaltasun judizioa, zentzu hertsian». Gai horri buruz hainbat aldiz erabaki du Konstituzio Auzitegiak, honako epai hauen bitartez, besteak beste: 122/1990, 123/1990, 8/1992, eta 126/2003.

Erabaki horietatik ondorioztatu behar dugu gizartearentzako ezinbesteko zerbitzuak emango direla ziurtatzeak mugatu egiten duela grebarako eskubidea

baliatzeko aukera, eta horretarako nahitaezkoa eta ezinbestekoa dela interes desberdinak kontuan hartuta zuhurtasunez jokatzea. Hori guztia dela-eta, ziurtatze horrek berme gisa jardun behar du, eskubide kontrajarrien ezinbesteko koordinaziotik abiatuta, betiere ulertuta grebaliaren eskubidea mugatu beharko dela —amore eman, Konstituzio Auzitegiaren hitzetan—, baldin eta haien interesak grebaren bidez babesteak komunitateari edo funtsezko zerbitzuaren hartzaileari zein zerbitzua jasotzeko eskubidearen titularrari eragiten dion edo eragin liezaiokeen kaltea larriagoa bada grebaliaren errebindikazioek edo eskakizunek arrakastarik ez izateak eragingo lukeena baino. Hori guztia dela-eta, aurrekoa kontuan hartuta eta greba-deialdi honen aurrean, grebaren garapenak dituen ezaugarri zehatzak hartu beharko dira kontuan.

Segidakoak ez diren hiru bloketan multzokatutako hamar eguneko greba da, ondoz ondoko lanaldiena, 2023ko apirilaren 13an, 14an, 22an, 23an, 24an eta ekainaren 12an, 13an, 14an, 15ean eta 16an, lehenengo eguneko 22: 00etatik tarte bakoitzeko azken eguneko 22:00ak arte, Bizkaiko Egoitzen sektorean, non eraginpeko zerbitzuen erabiltzaileen autonomia mugatuta dago, batetik bestera aldatzen den desgaitasun-maila desberdinetan.

Era berean, aipatzekoa da greba hau beste bi deialdirekin batera egin dela. Horietako bat LAB sindikatuak aurkeztu du, eta martxoaren 8an, apirilaren 3an, 4an, 5ean eta 2023ko maiatzaren 15ean, 16an, 17an, 18an, 19an eta 20an izango du eragina. Beste bat ELA sindikatuak aurkeztu du, eta 2023ko maiatzaren 20an, 21ean, 22an, 23an, 24an, 25ean, 26an, 27an, 28an, 29an eta 3an izango du eragina.

Hori horrela, maiatzean bederatzi greba-egun izango dira, eta igandean, maiatzaren 21ean, baino ez dira etengo.

Horrenbestez, behar bezala babestu behar dira bizitzarako, osotasun fisiko eta moralerako eta osasun-babeserako eskubideak —Konstituzioaren 15. eta 43.1. artikuluetan jasotakoak—, zeinak agintari publikoek bermatu behar baitituzte ziurtatuta beharrezkoak diren zerbitzuak ematen direla eta prebentzio-neurriak ezarrita, eta, aldi berean, greba egiteko eskubidea zilegi dela kontuan hartuta. 10.1. artikulua xedatzen duenez, gizabanakoaren duintasuna ordena politikoaren eta gizarte-bakearen oinarri da. Halaber, Konstituzioaren 49. artikulua xedatzen duenez, «Botere publikoek aurreneurri-, tratamendu-, bizkortze- eta gizarteratze-politika egingo dute elbarri fisikoentzat, zentzumen-elbarrientzat eta elbarri psikikoentzat; horiei, euren behar duten arreta berezia emango zaie, eta bereziki babestuko dira, titulu honek herritar guztiei ematen dizkien eskubideak egikaritu ahal izateko».

Bestalde, osasunaren babesa herritarrek gutxieneko osasun-prestazioak eskatzeko duten eskubide gisa islatzen da, giza duintasunaren eta estatu bakoitzaren garapen sozial eta ekonomikoaren arabera. Hala, Giza Eskubideen Adierazpenak (NBE, 1948) 25.1 artikuluan dioenez, «Pertsona orok du osasunerako eta ongizaterako eskubidea, eta, bereziki, laguntza medikorako eta beharrezko gizarte-zerbitzuetarako», eta zentzu berean adierazten dira Europako Gutun Sozialaren 11. artikulua, Europako Kontseilua (Turin, 1961) eta Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Itunaren (NBE 1966) 12. artikulua.

Aurreko guztia kontuan izanik Bizkaiko egoitzen sektoreko greba-deialdi berri horri dagokionez, gobernu-agintaritzak neurri egokiak hartu beharko ditu bermatzeko funtsezko zerbitzuari eutsiko zaiola egoitza arretan, bat etorrira honako arau hauetan ezarritakoarekin: Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legearen 26. artikulua eta horrekin bat datozenak; eta, Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legea, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzko urriaren 6ko 185/2015 Dekretua, Adintsuentzako etxeetako gizarte-zerbitzuei buruzko martxoaren 10eko 41/1998 Dekretua (uztailaren 30eko 126/2019 Dekretuaren bidez aldatua), eta Laguntza behar duten adinekoentzako eguneko zentroei buruzko urriaren 17ko 202/2000 Dekretua, betiere Konstituzioaren 15. eta 43.1. artikuluetan aurreikusitakoaren arabera.

Horren haritik, Lan Harremani buruzko martxoaren 4ko 17/1977 Legegintzako Errege-Dekretuaren 10. artikuluko bigarren paragrafoak «gobernuaren agintaritzari» esleitzen dio greba-kasuetan horrelako zerbitzuak ematea ziurtatzeko beharrezko neurriak hartzeko –hala badagokio– eskumena; Konstituzio Auzitegiaren jurisprudentziak horren inguruan egindako interpretazioaren arabera (besteak beste: 11/1981 epaia, apirilaren 8koa; 26/1981 epaia, uztailaren 17koa, eta 51/1986 epaia, apirilaren 24koa), erreferentzia hori Gobernuari edo gobernu-ahalmenak egikaritzen dituzten organoei dagokie.

Baina eskumen hori gauzatzeak ezin du, inondik inora, de facto ezabatu greba egiteko eskubidea, ezta eskubide horren edukia hutsaldu ere, eskubidea gauzatu bitartean bermatu beharreko gutxieneko zerbitzuek normaltasun-itxura emanda; horrela, izaera mugatzailea kontuan hartuta ezarri beharrekoa da. Horregatik, dagoeneko ezarrita dagoen jurisprudentziari jarraikiz, beharrezkoa da, izaera mugatzaile horren barruan, proportzionaltasun egokia ere bermatzea, babestu beharreko gainerako eskubideei begira; hala, ongi arrazoitu eta justifikatu behar dira murrizketa horiek.

Adinekoen egoitza-zerbitzuetako, etxebizitza komunitarioak eta eguneko zentroetako zerbitzu publikoak «ezinbestekoak» dira, aldeztatik aipatu ditugun arauak jarraikiz. Izan ere, prestazio horien onuradunak adinekoak edota mendekotasuna duten pertsonak dira, zeinak osasun-gabezia larriak izaten baitituzte, eta, horrenbestez, sistemaren laguntza integrala behar dute, arreta emateko bai haien autonomiari baita legeak onartu dien mendekotasun-mailari; horri erantsi behar zaio laguntza pertsonal handia ere behar dutela, bizitzaren eguneroko zereginak egiteko. Konstituzioak bereziki babesten ditu pertsona horiek guztiak, Konstituzioaren 50. artikuluan jasota geratu denez, eta Konstituzioaren 15. eta 43.2. artikuluetan jasota dauden bizirako, osotasun fisikorako eta moralerako eta osasunerako eskubideak ere horrekin lotuta daude egoera honetan, baita gizabanakoen duintasuna ere, zeina ordena politikoaren eta gizarte-bakearen oinarri gisa jasotzen baita 10.1. artikuluan.

Zerbitzu horien guztien oinarrizkotasuna bermatu eta, aldi berean, langileen grebaeskubidearen funtsezko edukiarekin uztartzeko, honako egoera hauek hartu behar dira kontuan:

1) Egoitza-arretako zerbitzua, abenduaren 14ko 39/2006 legearen, Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzkoa, 25. artikuluko terminologiaren arabera, adinekoentzako egoitza harrerako eta laguntza integraleko zentroa da, etengabeko osasun-zerbitzu pertsonalak eskaintzen dituena, iraunkor bihur daitezkeenak baldin eta egoitza hori adinekoaren ohiko egoitza bada. Kategoria horren barnean, honako egoitza mota hauek bereiz daitezke, martxoaren 10eko 41/1998 Dekretuaren, Adintsuentzako funtsezko gizarte-zerbitzuei buruzkoa, 2. artikuluan ezarritakoaren arabera:

Tutoretzapeko apartamentuak: Pertsona bakarreko eta/edo bikoteko etxebizitza autonomoen multzoak dira; taldeko zerbitzuak dituzte, aukeran erabiltzekoak; duten egoera psikofisiko eta soziala dela eta, baliabide gehiagorik behar ez duten pertsona nagusientzat dira.

Etxebizitza komunitarioa: Bizikidetzaren unitatea, gehienez 14 plazakoa, nolabaiteko autonomia-maila duten adinekoentzat sortua, eta familiakoaren antzeko giroa eskaintzen duena.

Egoitza: 14 plazatik gorako edukiera duen bizikidetzaren zentroa, etxebizitza iraunkor eta partekatua izateko sortua, eta mendekoei etengabeko arreta integrala eskaintzen diena. Gradu handiko ezintasunak dituztenei laguntzeko behar adinako baliabide materialez hornituko da ezinbestean.

2) Eguneko zentroko zerbitzuak mendekotasun-egoeran dauden pertsonen arreta integrala eskaintzen die egunez, autonomia pertsonala hobetzeko edo autonomia pertsonalaren ahalik eta maila hoberenari eusteko, eta familiei edo zaintzaileei laguntzeko. Ikuspegi biopsikosoziala oinarri hartuta, esan daiteke aholkularitza, prebentzioa, errehabilitazioa, autonomia sustatzeko orientazioa, gaikuntza edo asistentzia-arreta eta laguntza pertsonala ematen dituela bereziki. Zentro hauen tipologia, horiek arautzen dituen araudiaren arabera, honako hau da: 65 urtez beherakoentzako eguneko zentroak, 65 urtez gorakoentzako eguneko zentroak eta arreta espezializatuko eguneko zentroak, zaintza espezifikoak eskaintzen dituztenak.

3) Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendekotasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legearen 26. artikuluan, hiru mendekotasun-gradu ezartzen dira, eta gradu horren arabera zehazten da mendekotasuna duten pertsonen arreta. Hori horrela izanik, «mendekotasun handia» (III. gradua) duten pertsonen eguneroko askotan behar dute laguntza eguneroko oinarritzko jarduera batzuk egiteko, eta beste pertsona baten edo batzuen etengabeko laguntza behar dute, guztiz galduta dutelako beren autonomia fisiko, mental, intelektual edo sensoriala. «Mendekotasun larria» dutenek (II. gradua), berriz, laguntza behar dute eguneroko bizitzako oinarritzko jarduera batzuk egiteko, egunean bizpahiru aldiz, baina ez dute behar kanpoko zaintzaile batek etengabe laguntzea; nolahi ere, laguntza premia zabalak dituzte autonomia pertsonalaren arloan. Azkenik, «mendekotasun arina» dutenek (I. gradua) laguntza behar dute eguneroko bizitzako oinarritzko jarduera batzuk egiteko, gutxienez egunean behin, edo laguntza behar izaten dute, tarteka edo hein batean, beren autonomia pertsonalean.

4) Egoiliarren ezintasun-mailaren eta horren ondoriozko mendekotasunaren arabera, laguntza eta arreta integralerako hainbat maila daude zehaztuta pertsona horien eguneroko bizitzako oinarrizko jardueretan.

5) Sektore horretan pertsonen ematen zaizkien zerbitzu guztiek ez dute eragin bera haien baldintza biopsikosozaletan. «Zuzeneko arreta-zerbitzuak» izenekoak dira (osasun-arreta, arreta geriatrikoa eta abar), zalantzarik gabe, greba-egoeretan mantendu beharreko funtsezko zerbitzuak, mendekotasuna duten pertsonekin zuzenean lotuta daudelako. «Arreta zuzeneko zerbitzuen» barnean ditugu, halaber, otorduen prestaketa eta otordu-zerbitzua, hidratazioak, botika-hornidurak, siesta terapeutikoak eta, deialdi zehatz honetan, higie pertsonala, eta zeregin horiek guztiek osatzen dute zerbitzuko erabiltzaileen —bereziki, mendetasun handia dutenen— osasun narriatua zaintzeko beharrezkoa den laguntza-tratamendu integralaren zati bat. Era berean, «zuzeneko arreta zerbitzuaren» barruan sartzen da altxatzeko, garbitzeko, jantzeko edo jateko laguntza ematea.

6) Zuzeneko arretako zerbitzuez gain, beste zerbitzu batzuk ere badaude, neurri txikiagoan bada ere, ematen direnak eta aurrekoen zeharkako mende daudenak (garbiketa, garbitegia, sukaldea, etab.) edo egoitza-instalazioen eta -zerbitzuen koordinazioan, mantentze-lanetan eta segurtasunean laguntzen dutenak.

Sukalde-zerbitzuari dagokionez, elikagaiak prestatzeko mantendu beharko da, baina elikagaiak ahalik eta modu erraz eta sinpleenean egingo dira, medikuaren berriazko agindu zehatzik ezean, eta erabili eta botatzeko erabiliko dira, zeregin horretan ahalik eta denbora gutxien erabiltzea dakarten protokolo edo metodologiaren arabera. Era berean, garbiketa-zerbitzuek, zeharkako zerbitzuek, baina beharrezko higie zaintzeko beharrezkoak direnek, intentsitate txikiagoarekin, egoiliarren osasuna arriskuan jartzea saihesten duten oinarrizko zereginak egin beharko dituzte.

Ikuztegi-zerbitzuan, zerbitzua duten zentroetan, arropa zuria eta zerbitzuaren gainerako tresnak garbitzeaz gain, egoiliarren arropa pertsonala garbitzen da. Aipatutako arropa guztietatik, egoiliarrekin harreman zuzena duena da eman beharreko zerbitzutzat hartu behar dena, eta arau honen xedapen-zatian zehazten da.

Mantentze-lanetako eta atezaindegia hartzeko zerbitzuek, funtsezkoak izan gabe, greba honetan gutxienekotzat jotzen diren zerbitzuak eta instalazioak behar bezala funtziona dezaten laguntzen dute. Gutxieneko zerbitzu horien funtzionamenduan eragina izan dezaketen ustekabeak babestu beharreko funtsezko zerbitzuen berme gisa artatu beharko dira.

7) Zentro horien ohiko funtzionamenduak intentsitate-maila desberdinak ditu egunean zehar burutu beharreko zereginen dagokionez, pertsonen jardura funtzionalaren eta ziklo biologikoaren arabera, eta jardura handiagoa metatzen da goizeko lehenengo orduan (jaiki, higie pertsonala, jantzi, medikazioa eta abar), eguerdiko otorduan eta eguneko azken orduetan (afaria, oheratu, pixoihala aldatu, medikazioa eta abar); beraz, ordu horietan arreta pertsonalizatu handiagoa behar da. Hortaz, eguneko gainerako orduetarako ezarritako langile-kopurua baino handiagoa ezarri behar da aipatutako ordu horietarako, egoiliarren beharrei arreta emateko jardura txikiagoa baita gainerako ordu horietan.

8) Grebaren eraginpeko zentroen espazioaren konfigurazioa ere kontuan hartzekoa da. Hau da, greba-egoera batean zentro bakoitzari zer giza baliabide banatuko zaizkion ezartzeko orduan, egoiliarrei arreta behar bezala eta segurtasunez emango zaiela bermatu behar da, eta gutxieneko zerbitzuak baldintza posibleetan eta horiek eman behar dituzten pertsoneri arriskurik sortu gabe emango direla.

9) Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan osasun-sistema unibertsala dagoenez, eta grebaren iraupena kontuan izanik, zera pentsa daiteke: osasun-arreta behar duten larrialdiko eta atzeraezinezko egoeretan egoiliarrei arreta ematea bermatua dagoela larrialdiko osasun-sistemaren bidez. OLT/EUDen egoera bestelakoa da; izan ere, askotan (mendekotasuna edo mendekotasun handia dute pertsonen kasuan batez ere), kronikoa izaten da sendaketak egiteko eta botika-dosiak prestatzeko beharra, eta, beraz, jarduera horiek ez badira betetzen, arriskuan jar daiteke zainketa horiek behar dituztenen osasuna.

10) Greba honen deialdiaren esparruan, zentroak askotarikoak eta heterogeneoak dira; pertsonen mendekotasun-mailetan ere berezitasunak askotarikoak dira, baita kudeaketa-ereduak ere, langileen plantillei eta koadranteei dagokienez batez ere. Hori dela-eta, oso zaila da honelako agindu batean horiek guztiak homogeneousatzea.

Alderdi horiek ere kontuan izan behar dira gutxieneko zerbitzuak zehazteko garaian, egoiliarren oinarritzko eskubideak babesteko ahalegina egin behar baita, betiere gaur egungo errealitate soziokulturalarekin bat datozen duintasun-baldintzak betez, baina ezinbesteko baldintzetara murriztuta, greba-eskubidea ere babestearren eta greba egitera deitutako langile ahalik eta gehienek oinarritzko eskubide hori baliatzeko aukera izan dezaten, bai eta greba egintzat har dadin.

11) Adintsuentzako etxeetako gizarte-zerbitzuei buruzko martxoaren 10eko 41/1998 Dekretuaren II. eranskineko 10. Zehaztapen Teknikoak ezartzen ditu gizarte baliabide hori behar bezala emateko behar diren gutxieneko langile-ratioak, langileen lankarga eta erabiltzaileek merezi duten arreta kontuan hartuta. Ratio horiek saihesta daitezke greba-egoeretan, gutxieneko zerbitzuak finkatzeko garaian, baina egoiliarren oinarritzko eskubideak bermatu egin beharko dira, ezinbestean.

12) Arreta zuzenaren eta 6. puntuan zehaztutako zerbitzuen (garbiketa, garbategia, sukaldea eta harrera-atezaintza) funtsezkotasun-irizpide bera gertatzen da mendekotasuna duten adinekoentzako eguneko zentroekin ere. Zentro horiek, oro har, egoitzetan baino langile gutxiago dituzte, eta urriaren 17ko 202/2000 Dekretuan arautzen dira. Baimentzeko irizpideak 7. artikuluan araututa daude, I. eranskinari dagokionez (8. apartatua, zehazki, langileei buruzkoa da).

Zentro horiei dagokienez, Madrilgo Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salaren ekainaren 28ko 558/2011 Epaiak xedatzen duenez, *«greban zehar haiek ixtea bateraezina da dekretuak zerbitzu zehatz horiei ematen dien oinarritzko izaerarekin. Gu ere bat gatoz oinarritzko izaera horrekin; izan ere, eguneko zentroi eta desgaitasuna duten pertsonen arretarako zentroi dagokienez, egunean zehar adinekoekin eta desgaitasuna duten pertsonekin duen harremanean oinarritzen da izaera. Pertsona horiek lanegunean egiten den greban zehar haien ardura duten helduen zaintzapean geratu beharko lukete, eta horrek heldu horien askatasuna eta autonomia*

murriztuko luke beharrezkoak diren beste jarduera batzuk gauzatzeko, funtsean lanjarduera, lanegun bat baldin bada».

Zentro horietan funtsezko zerbitzutzat hartu behar da, halaber, mendekotasun egoeran dauden pertsonen garraioa, baldin eta egin behar dituzten joan-etorriak (aurreko paragrafoan aipatutako funtsezko zerbitzuak jaso ahal izateko) ezin badira egin haien mugikortasun-ahalmenera egokitutako bestelako garraio bideen bitartez. Zerbitzu hori emango ez balitz, pertsona horiei kendu egingo litzaizkieke laguntza, terapia eta osasunerako arreta eta zerbitzuak, hau da, beren «eguneroko bizitzako oinarrizko funtzioak» deritzenak prebenitu, mantendu eta hobetzeko xedea dutenak (funtzio horiek bermatzen ditu, hain zuzen ere, abenduaren 14ko 39/2006 Legeak, autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzkoak, 24. artikuluan).

Horren harira, gobernuko agintaritza honek portzentaje jakin bat zehaztu gabe ezarri izan ditu gutxieneko zerbitzuak, nahikotzat jo izan baita zerbitzua azaldu den bezala emateko xedea ezartzea. Hala eta guztiz ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak bere irizpena eman du gai horri buruz, 2013ko maiatzaren 30eko greba orokorraren deialdiaren kariaz ezarritako gutxieneko zerbitzuei buruzko Aginduz 2013ko irailaren 25ean emandako epaiaren bitartez. Epai horretan, garraio-mota horri dagokion oinarrizko zerbitzuaren izaera aitortzen dio Auzitegiak, eguneko zentroek ematen duten oinarrizko zerbitzura iristea bermatzen duelako. Hala ere, Salaren ustez, xedapenak motibazioa falta du, «zerbitzuok emateko deia jaso duten langileen greba-eskubidearen mugaren proportzionaltasunari erreparatzen bazaio».

Aipatu behar da gobernu honek ez duela ehuneko zehatzik ezarri sektorean errealtate desberdin asko daudelako eta haiek guztiak ezagutzea zaila delako; hori dela eta, aipatutako testua nahikotzat jo zuen.

Greba-eskubidea baliatzeko aukera mugatzeak sortzen duen arazoa da kasu honetan aztergaia, zerbitzu hori emateko soilik kontratatu diren eguneko zentroetako langileen kasuan. Izan ere, erabiltzaileen ezintasunen ondorioz, zerbitzu hori emateko guztiz beharrezkoa da gidari bat eta begirale edo laguntzaile bat egotea, eta ezin da ezarri %100etik beherako portzentajerik. Bestalde, kasu hauetan ezin da ezarri eman beharreko garraioaren portzentaje-murrizketarik, zerbitzua ematen bada ere intentsitatea baxuagoa izan dadin. Izan ere, horrek langile horien lanaldia luzatzea eragingo luke, ohiko lanaldia baino luzeagoa ezarrita. Ondorioz, egoera honetan garraio bereziaren funtsezko zerbitzua bermatzeko eman behar den zerbitzuak guztiz mugatu diezaieke greba egiteko eskubidea langile horietako batzuei, zerbitzu hori egin dezaketen bakarrak direlako, baldin eta ez badago bestelako garraio biderik, erabiltzaileen mugikortasun-gaitasunetara aski egokituta dagoenik.

13) Greba-deialdi honen eraginpeko zentroetako langileak era askotakoak dira, enpresa eta erakunde desberdinei atxikita baitaude. Hori horrela, egoitza eta eguneko zentro batzuetan, gerta daiteke langile batzuk grebara deituta egotea eta beste batzuk ez.

Hori gertatzen bada, normalean lan horiek egiten dituzten bi kolektibo horien guztirakoaren gainean zehazten dira greban estali beharreko langile-ratioak eta gutxieneko zerbitzuak.

Orain arte azaldutakoarekin bat etorritik, eta laburpen gisa, kontuan hartu behar da 2023ko apirilaren 13, 14, 22, 23, 24 eta ekainaren 12, 13, 14, 15 eta 16rako deitutako greba-eskubidea egikaritu bitartean, Bizkaiko Egoitzen Sektorean ezinbesteko pertsonakopuru batek eman behar duela zerbitzua «zuzeneko arretako zerbitzuak» eta zerbitzuen funtsezkotasuna bermatzeko ezinbestekoak diren beste jarduera batzuk egiteko. Hori dela eta, Jaurlaritzak agindu honetan zehazten diren gutxieneko zerbitzuak ezarri behar ditu, gatazkan dauden eskubideen funtsezko edukia bateragarri egiteko.

Premisa horietatik abiatuta, besteak beste, hamar eguneko greba deitu da, segidako hiru bloketan multzokatuta, segidako lanaldietan, 2023ko apirilaren 13an, 14an, 22an, 23an, 24an eta ekainaren 12an, 13an, 14an, 15ean eta 16an, eta kontuan hartuta, batetik, otsailaz geroztik ia lau asteko greba egin dela, eta, bestetik, deialdi hau beste bi deialdirekin batera egin dela; Horietako bat, LAB sindikatuak aurkeztua (2023ko martxoaren 8a, apirilaren 3, 4, 5 eta maiatzaren 15, 16, 17, 18, 19 eta 20), eta bestea, ELA sindikatuak aurkeztua (2023ko apirilaren 20, 21, 22, 23, 24, 25, 26, 27, 28, 29 eta maiatzaren 1, 2 eta 3). Ondorioz, maiatzean bederatzi greba-egun izango direnez, bakarrik igandeagatik (maiatzak 21) etenda, beharrezkoa da gutxieneko zerbitzuak pixka bat handitzea, erabiltzaileen osasunean okerragotzea saihesteko, eta ezarri behar da Bizkaiko egoitza pribatuetan eta etxebizitza komunitarioetan arreta zuzena ematen duten gerokultoreen edo parekatuen % 70ek eman behar dutela zerbitzua, bazkarien ohiko ordutegian eta goizeko 8: 00etatik 10: 30era eta 20: 00etatik 22: 00etara izan ezik, orduan ehuneko hori % 10 handituko baita. Kuantifikazio hori Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak 2018ko otsailaren 17an 1288/2017 prozeduran eta 2018ko apirilaren 18an 1196/2017 prozeduran emandako epaien arabera egin da. Epai horien edukiari lotzen gatazka. Era berean, gaueko txandan, zuzeneko arretako langileen % 100ek eman beharko dute zerbitzua, eta “zuzeneko arretako zereginak” baino ez dira egingo.

Esan bezala, zuzeneko arretaren funtsezkotasun-irizpide bera aplikatu behar zaie eguneko zentroei ere, oro har, egoitzetan baino langile gutxiago baitituzte.

Inguruabar horiek guztiak eta jurisdikzio-babeseko 1.288/2017 eta 873/2018 errekurtsoetan emandako epaiak, besteak beste, aurreko deialdietan gutxieneko zerbitzuak ezartzeko garaian baloratu dira. Hain zuzen ere, aipatutako bigarren epaiak, aurrekoarekin lotuta, honako hau dio berariaz: «Nabarmendu behar dugu, sektorearen berezitasunari, zerbitzuen hartzaileri eta egoitzen hartzaileri dagokienez, justifikatuta dagoela gutxieneko zerbitzuak ezartzean jardutea, prebentzioz, Bizkaiko sektoreko grebarekin lotuta Salaren aurrekarietan baloratu ziren egoerak ez sortzeko. Egoera horiei buruzko epai guztietatik, 1288/2017 Babes Jurisdikzionalako Errekurtsoan emandakora jotzen dugu».

Azkenik, eta gutxieneko zerbitzuak egitera deitutako langileen ehunekoak aplikatzeko moduari dagokionez, agindu honek Gipuzkoako hirugarren adinekoen egoitzen sektorean maiatzaren 21etik 25era bitarteko grebarako deialdia egitean ezarri beharreko gutxieneko zerbitzuak arautzen dituen 2019ko maiatzaren 20ko Aginduan jasotako idazketa errepikatzen du. Agindu horrek gutxieneko zerbitzuak egitera deitutako langileen ehunekoak zenbatzeko modua aldatu zuen, eragindako eskubideak babesten saiatzeko. Formula hori honako agindu hauetan errepikatu zen, besteak beste: 2019ko azaroaren 8ko eta abenduaren 11ko Aginduak; 2020ko urtarrilaren 10eko, otsailaren 6ko, martxoaren 6ko, urriaren 2ko, urriaren 6ko, abenduaren 4ko eta abenduaren 18ko Aginduak, Gipuzkoako eta Arabako Egoitzen Sektorean deitutako grebetan emanak; eta 2021eko abenduaren 10eko Agindua, Bizkaiko Egoitzen Sektoreko grebarako gutxieneko zerbitzuak arautu zituen.

Gobernu Agintaritzari gai honetan eskumen eskusiboa esleitzeak bermatu nahi du greba-eskubidearen erabilerak izan behar dituen mugak Zuzenbidearen arabera baino ezin izango direla ezarri, oinarritzko beste eskubide batzuk betetzera bideratutako funtsezko zerbitzu jakin batzuei eustearren, eta gobernatzeko erantzukizuna eta ahala duenak bakarrik.

Hori dela eta, Lan Harremani buruzko Errege Lege-Dekretuaren (martxoaren 4ko 17/1977 Errege Lege-Dekretuaren) 10.2. artikulua aipatzen duen prozedura hasi da, eta entzunaldia eman zaie ukitutako aldeei, enpresa-elkarteei eta sindikatuen ordezkari, baita Foru Aldundiari ere, alegazioak egin ditzaten gizartearentzako funtsezkoak diren zerbitzu hauek bermatzeko beharizanari buruz, bai eta, hala badagokio, estali beharreko gutxieneko zerbitzuak proposa ditzaten ere.

Lan eta Enplegu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarrilaren 19ko 7/2021 Dekretuaren 3. artikulua titularrari esleitzen dizkio irailaren 6ko 18/2020 Dekretuak (Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen) lan-legeria betearaztearen arloan bereganatutako eskumenak. Zehazki, 2.j) apartatua: zerbitzu publikoak edo premia aitortua eta atzeraezina duten zerbitzuak ematen dituzten enpresa, erakunde eta instituzioei eragiten dieten greba-eskubidea egikaritzen den kasuetan, erkidegoaren funtsezko zerbitzuei eutsiko zaiela bermatzeko behar diren bermeak ezartzeko eskumena.

Horregatik guztiagatik, bigarren Lehendakariordeak eta Lan eta Enpleguko Sailburuak, Eusko Jaurlaritzaren ordezkari hartuta, honako hau

EBAZTEN DU:

Lehena. -Agindu honetan ematen diren gutxieneko zerbitzuak:

1. Bizkaiko egoitzen sektorean (egoitza-zentroak, etxebizitza komunitarioak eta eguneko zentroak) langileek 2023ko apirilaren 13, 14, maiatzaren 22, 23, 24 eta 12, 13, 14, 15 eta ekainaren 16rako deitutako greba-eskubidea baliatu ahal izateko, ezinbestekoa

izango da arreta zuzeneko zerbitzuak mantentzea, horiek gutxienekotzat jo behar baitira eta egoiliarren bizitza eta osasuna bermatzen baitute, haien beharren arabera. Beraz, ohetik jaikitze eta oheratzeko (jarrera-aldaketak eta abar barne), osasun-laguntzarako (medikazioa, sendaketak eta abar), oinarrizko higiene pertsonalerako, elikadurarako eta botikak emateko behar diren zerbitzuak emango zaizkie. Era berean, zeharkako oinarrizko gutxieneko arreta-zerbitzu gisa ezartzen dira.

2. Ondoren aipatzen diren langileek jarraian zehazten den moduan egin beharko dituzte jardura horiek:

2.1. Oro har.

2.1.1. Portzentajea kalkulatzeko:

a) Ehuneko 1 baino baxuagoa bada, pertsona bati dei egingo zaio, gutxieneko zerbitzuak eman ditzan.

b) Gainerako kasuetan, emaitza zenbaki zatikiarra bada, gutxieneko zerbitzuak eman beharreko denbora kalkulatzeko, zerbitzu bakoitzeko langileen ohiko lanaldia zenbatekoa den hartuko da kontuan.

2.1.2. Artikulu honetan gutxienekotzat hartutako zerbitzuren bat ez duten zentro edo arloetan, aipatzen den langile-kopuru hori ez zaie gehituko beste zerbitzu edo arretei.

2.1.3. Gerta daiteke gutxieneko zerbitzuak betetzeko garaian greba egitera deitutako langileak eta greba egitera deitu gabekoak elkartzea; kasu horretan, agindu honetan finkatutako ehunekoak kalkulatzeko, ohiko moduan lan horiek betetzen dituzten bi kolektibo horietako langileen guztirakoa hartuko da kontuan.

Era berean, honako ordena honi jarraituz erabakiko da nork bete behar dituen «bat datozen» gutxieneko zerbitzuak: lehenik, normalean zerbitzu horiek egiten dituzten eta grebara deituta ez dauden langileei dei egingo zaie; bigarrenik, normalean zerbitzu horiek egiten dituzten eta, deituta egon arren, greban parte hartu nahi ez duten langileei; eta, azkenik, langile horiekin ez bada gutxieneko zerbitzua betetzen, greban parte hartu nahi dutenei deituko zaie.

2.1.4. Medikuek bestelako agindu berezi eta zehatzik ematen ez duen heinean, elikagaiak prestatu eta egoiliarrei emateko prozesua ahalik eta modu sinple eta errazenean egingo da, erabili eta botatzeko elementuak baliatuta eta lanak egiteko ahalik eta denbora gutxien eskatzen duten protokolo edo metodologiaren arabera, grebaren eragina suma dadin eta greba egin nahi dutenetatik ahalik eta langile gehienek baliatu ahal izan dezaten eskubide hori. Ezin izango da, inola ere, egoiliarren osasuna eta osotasuna arriskuan jarri.

2.1.5. Lehentasuna izango dute mendekotasuna duten pertsonen higiene pertsonala zaintzeko eta pertsona horiei botika edo elikagai terapeutikoak emateko lanek — betiere, medikuek aginduta edo osasun-protokoloan jasota badaude—, arreta hori gabe arriskuan leudekeen heinean. Halaber,

edozein kasutan, oinarrizko higiene pertsonalaren bidez egoiliarren osasuna eta osotasuna bermatuta egongo da.

2.1.6. Pertsonen osasunerako edo segurtasunerako berehalako arrisku larria izan dezaketen arloetan egingo dira garbiketa-lanak. Horretarako, deialdi honetan erreferentziazko irizpideak izango dira behin eta berriz aipatu ditugun osasun gomendioak, bai eta Laneko eta Osasuneko Arriskuen Prebentzioko xedapen eta protokolo dokumentatuak ere.

2.1.7. Garbitegia bakarrik egingo da (eta ordena honetan): lehenik, egoiliarren barruko arropa garbitu eta lehortuko da, eta, bigarrenik, arropa laua garbitu eta lehortuko da: izarak, burkoak eta eskuoihalak.

2.2. Egoitzak:

a) 2023ko maiatzaren 22an, 23an eta 24an:

Zuzeneko arreta ematen duten gerokultoreen edo parekatuen % 70i eutsiko zaio, otorduen ohiko ordutegian izan ezik, baita goizeko 08: 00etatik 10: 30era eta 20: 00etatik 22: 00etara ere, orduan ehuneko hori % 10 igoko baita.

Gaueko txandan, zuzeneko arretako langileen % 100ek emango du zerbitzua.

Txanda guztietan, «zuzeneko arretako» zereginak baino ez dira egingo.

b) 2023ko apirilaren 13an eta 14an eta ekainaren 12an, 13an, 14an, 15ean eta 16an:

Zuzeneko arreta ematen duten gerokultoreen edo parekatuen % 50i eutsiko zaio, otorduen ohiko ordutegian izan ezik, baita goizeko 08: 00etatik 10: 30era eta 20: 00etatik 22: 00etara ere, orduan ehuneko hori % 10 igoko baita.

Soilik erabiltzaileen % 70ek baino gehiagok II. edo III. graduako mendekotasun aitortua duten egoitzetan, gerokultoreak edo parekatuak % 70 izango dira.

Gaueko txandan, zuzeneko arretako langileen % 100ek emango du zerbitzua.

Txanda guztietan, «zuzeneko arretako» zereginak baino ez dira egingo.

2.3. Eguneko zentroak:

Eguneko zentroetan, greba-egunean zuzeneko arretako zerbitzuei eusteko, arreta zuzen hori ematen duten gerokultoreen edo horien pareko langileen % 50ek lan egingo du. Gosariaren eta bazkariaren ohiko ordutegian izan ezik, ehuneko hori % 10 handituko baita.

Txanda guztietan, egin beharreko zereginak normalean arreta zuzenean egin ohi diren horiek izango dira.

Era berean, eguneko zentroetara joaten diren mendekoen garraio berezia bermatuko da, zentro horietara joateko desplazamenduak ezin badira bestelako garraibideen bitartez egin, eta/edo horiek ez badaude haien mugikortasun-ahalmenera egokituta.

2.4. Etxebizitza komunitarioak:

Etxebizitza komunitarioetan gerokultoreen edo parekoen %50 egongo da, gosaltzeko, bazkaltzeko eta afaltzeko orduan izan ezik, otorduetan ehuneko hori %10 igoko baita.

Gaueko txandan, zuzeneko arretako langileen % 100ek emango du zerbitzua, eta «zuzeneko arretako» zereginak soilik egingo dira.

Txanda guztietan, egin beharreko zereginak normalean arreta zuzenean egin ohi diren horiek izango dira.

2.5. Osasun-langileak:

OLT/EUD langileen %50 egongo da.

2.6. Sukaldeko langileak:

Langileen %50ek lan egingo du. Greban, sukaldeko langileek elikagaiak prestatu beharko dituzte, baina ez dute egin beharko bestelako lanik.

2.7. Garbitzaileak:

Langileen %20ek lan egingo du. Garatu beharreko lanak agindu honen 2.1.6. apartatuan aipatutakoak izango dira eta egiteko beharrezkoa den denboran baino ez dira egingo.

2.8. Ikuztegiko langileak:

2023ko maiatzaren 23an eta ekainaren 14an lan hori egiteko erabili ohi den lanaldiaren % 20an emango da zerbitzua.

2.9. Ateko/harrerako langileak:

Egoitzako sarrera nagusiko atea zaintzeko eta kontrolatzeko eginkizunetarako baino ez du emango zerbitzu hori pertsona batek, txanda bakoitzean.

Bigarrenena. - Dagozkion administrazio-izapideak betez gero, aipatutako zerbitzuak aldatu ahal izango dira grebaren iraupenagatik, edo arrazoi higieniko biosanitarioak edo batbateko ezohiko arrazoiak direla-eta ezinbestekoa baldin bada.

Hirugarrena. –

1. Agindu honen 2.1.3. zenbakian ezarritako ordenaren arabera zehaztuko da zer langilek bete behar dituzten zerbitzu horiek.

2. Langileen ordezkariari entzun eta gero, Enpresa Zuzendaritzak izendatuko ditu gutxieneko zerbitzuak bete behar dituzten langileak eta langile horiek, txandaka, bete beharreko eginkizunak. Nolanahi ere, orain arte esandakoak eta aurreko artikuluan nahiz indarreko legedian ezarritako mugak errespetatu beharko dira.

Laugarrena. - Agindu honen aurreko apartatuetan bildutako gutxieneko zerbitzuak ezin izango dira aldatu horiek egiteko izendatuta dauden langileen aldaketen edo lanuzteen ondorioz. Halakorik gertatuz gero, legez kontraktatzat joko dira eta horiek egiten

dituztenak izango dira erantzule, eta erantzukizuna eskatuko zaie indarrean dagoen ordenamendu juridikoaren arabera.

Bosgarrena. - Aurreko artikuluetan xedatutakoa gorabehera, greba egiten duten langileen eskubideak, grebari buruzko araudiak aitortzen dituenak, ez dira inola ere murriztuko, ezta grebarako deia egin dutenen eskakizunen izapidetzea eta ondorioak mugatuko ere.

Seigarrena. - Jakinarazten den egunean jarriko da indarrean agindu hau.

Zazpigarrena. - Agindu honen berri eman behar zaie interesdunei, urriaren 1eko 39/2015 Legeak (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak) 40. artikuluan xedatutako moduan; halaber, ebazpenak administrazio-bidea agortzen duela jakinarazi behar zaie, eta horren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango dela Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren dagokion salan, ebazpena jakinarazten denetik 2 hilabeteko epean, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean xedatutakoaren arabera

Era berean, eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan aurreikusitakoari jarraikiz, honako hau ere jakinarazi behar zaie: agindu honen aurka aukerako berraztertze errekurtsua aurkez daitekeela lan-agintaritzan honetan, hilabeteko epean agindua jakinarazi eta biharamunetik hasita.

Vitoria-Gasteizen, **2023ko apirilaren 12an.**



**BIGARREN LEHENDAKARIORDEA ETA
LAN ETA ENPLEGUKO SAILBURUA**